covid-19

Irakasgaiaren Egokitze Plana - Ebaluazioaren Egokitzea

Ikasgaiaren Irakaskuntza Gidari eransteko Adenda

Plan de Adaptación de la Asignatura – Adaptación de la Evaluación

Adenda a la Guía Docente de la Asignatura

Fakultatea	Bilboko Hezkuntza Fakultatea
Titulazioa	Lehen Hezkuntza Gradua
Maila / modulua	3. maila, 5.eta 6. moduloak. 31-32-33-61 taldeak
Irakasgaia	Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika
Irakaslea(k)	Aintzane Etxebarria Lejarreta, Juan Abasolo Isasa, Karla Fernández de Gamboa Vázquez, Naia Egusquiza Sanchez, Javi Rojo Cobos, Jon Kortazar Uriarte, Aritz Galarraga Lopetegi (Iratxe Esparza Martinen ordez) eta Laura Mintegi Lakarra.

Ikasgairen ebaluazioa formatu ez-presentzialean gauzatzeko programazioa

Programación para el desarrollo de la evaluación de la asignatura en formato no-presencial

Irakasgaiak bi zati ditu eta irakaslegoa ere aldatu egiten da.
Hizkuntzaren Didaktika (lehen lauhilabetean): Aintzane Etxebarria, Juan Abasolo eta Karla Fernández de Gamboa Vázquez aritu dira. Dozentzia amaituta dago, azterketa azaroan egin zen eta nota jasota dago.

Literaturaren Didaktika (bigarren lauhilabetean): Javi Rojo, Aritz Galarraga (Iratxe Esparzaren ordez), Naia Egusquiza eta Laura Mintegi ari dira. Ikasleek dozentzia presentziala jaso dute 16-22 asteetan (7 aste), eta 23-30 asteeetara (8 aste) dozentzia online jaso/jasoko dute.

Ebaluazioari begira GIDAn jasotzen den irizpidea hauxe da:

Ikasgaiak bi atal ditu (Hizkuntza eta Literatura) eta zati bakoitza gainditu behar da ikasgaia gainditzeko (ikasgaiaren bukaerako nota bi atalen arteko batez bestekoa izango da).

Ebaluazio jarduera guztiak gainditu behar dira ikasgaia gainditzeko.

Azterketen balioa bukaerako notan: %50.

Era indibidualean eta taldeka egindako lanen balioa (DALren nota barne %16): %50

Ikasleak ohiko deialdian bi ataletako bat gainditu gero, hizkuntzaren edo literaturaren nota gordeko da ikasturte akademiko beraren ezohiko deialdirako.

Irakasleek adostuta, honela gelditukо da irakasgaiaren ebaluazioa:
- Hizkuntzaren Didaktika atalaren ebaluazioa: %50 (DAL lanaren %6 barne).
- Literaturaren Didaktika atalaren ebaluazioa: %50 (DAL lanaren %10 barne).

Literaturaren Didaktikari dagokion portzentaia (%50) honela banatuko da:
- Taldeka egindako lanak: %30.
- Banaka egindako lanak: %10
- DAL lana: %10

Bigarren lauhilabetearen hasieran irakasleek aurreikusten zuten ebaluazioaren zati bat **ebaluazio jarraituaren bidez** egitea eta beste zati bati **azken azterketaren** bidez.

Errektoregoaren gomendioak aintzat hartuta, **bigarren lauhilabeteko azken azterketa baztertu da** eta ebaluazio jarraituaren tresnak erabiliko dira irakasgaia ebaluatzeko.

Ikasleek, taldeka zein banaka egingo dituzte lanak.
Taldeka, honelako lan motak eskatuko dira:
- Testu aukeratuen gaineko laburpen/hausnarketa idatzia eman.
- Testu literarioak sortu eta idatziz/ahoz eman.

Banaka, honelako lan motak eskatuko dira:
- Test moduko galdetegiak (eGelako baliabideak).
- Audio/bideo grabaketak.
- HGLren gaineko kontzeptuei buruzko galderak erantzun idatziz.

Irakasle bakoitzak bere taldean (31-32-33-61) zehaztuko ditu egin beharreko lan kolektiboak eta banakakoak, eta lan bakoitzari dagokion ebaluazioaren portzentaia azalduko du.
Egin beharreko lanak eta portzentaiak eGelan argitaratuko ditu **apirilaren 30a baino lehen**.

Lan guztien ebidentziak, idatzizkoa ala ahozkoak izan, gorde egingo dira.

OHARRAK

- Azterketaren data ofiziala **maiatzaren 29an** ezarrita dago baina, irakasleak hala erabakiz gero, **ekainaren 5era arte** luza daiteke lanak emateko epea**.**

- Azoroko deialdira aurkeztu ez eta maiatzerako utzi zuten ikasleak, ebaluatuak izango dira irakasleak ezarritako modalitatearen arabera. Irakasleak taldearen eGelan argitaratuko du lanen bidez edo/eta azterketa eginda ebaluatuko den.

- Ebaluazioa ez-jarraituari uko egin dioten ikasleek azterketa egingo dute dagokion datan (**maiatzaren 29a**). Horren ordez, irakasleak aldez aurretik eska diezaieke lan bat aurkezteko. Azterketa izan zein lana izan, probaren balioa %100 da. Irakasleak taldearen eGelan azalduko du hautatuko den modalitatea eta bakoitzaren nondik norakoa.

- Ezohiko deialdirako data ofiziala**, ekainaren 26a** zen eta mantendu egingo da. Ezohiko deialdirako egin beharreko lana edo azterketa irakasle bakoitzak zehaztuko eta argitaratuko du taldearen eGelan. Ezohiko deialdian ebaluatuko dira irakasgaiaren lehen eta bigarren zatiak batera, atalen bat (edo biak) gainditu gabe edukiz gero.

Fakultateko ikasgai bakoitzeko irakasle arduradunak fitxa osatu beharko du, eta ondoren gure Fakultateko Titulazioko Koordinatzaileari (Nekane Belokiri, Arantzazu López de la Sernari edo Nahia Idoiagari, graduaren arabera) eta bere Saileko zuzendaritzari bidali, apirilaren 23a baino lehen.